



**Lezamarrok behar dugun
ETXEBIZITZA**

**Babesa ofiziala
Alokairu soziala
Populazioari egokitutako kopurua**

23 y 24 de Marzo Jornadas sobre la vivienda en Lezama

 **Lezama Bizirik**

ETXEBIZITZARI BURUZKO JARDUNALDIAK LEZAMAN **MARTXOAREN 23 ETA 24AN. PARTE HARTU!**

Martxoaren 23 eta 24 honetarako Lezama Bizirik Auzo Elkarteak jardunaldiak antolatu ditu etxebizitzaren arazoaren inguruan.

Lezamaren etorkizunari begira jarrita etxebizitzaren gaiarekin egiten dugu topo aurrez aurre. Ondorengo datuek beste askoren artean, erakutsiko digute gaiaren garrantzia:

1. Udaleko planen arabera, datozen 8 urteotan, Lezama bikoizterainoko etxebizitzak eraikitzen jarraituko dutela aurreikusten da.
2. Horretaz gain, ez da aurreikusi etxebizitza berrien artean VPOak, ezta alokairu sozialakorik ere izango direnik, eta honen ondorio jarraituko du izaten, urte askotan legez, gazteriaren herria utzi eta alde egin beharrak.

Hortxe da eztabaida; Zenbat eta zein motatako etxebizitza behar dugun, zer esaten duten indarrean dauden legeek, zein den herritarron parte hartzeari dagokigun tarteak, zein eragin izan dezakeen Lurzoruaren Lege berriak, etab.

Guzti honegatik Lezama Bizirik-ek Mahaia ingurua eta ekintza herritarra antolatu ditu, gure etorkizuna jokoan jartzen duten edozein gairen lanketa eta parte hartzea bermatzeko asmoarekin.

Martxoaren 23a, ostirala, 19:30tan. Udaletxeko Kultur Aretoan

Konferentzia-Mahaingurua

Partehartzaileak: **-Iñigo Maguregi** (Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza saila)
 -Alberto Frias (Eguzki Mugimendu Ekologista)
 -Karlos Morentín (Elkartzen Kolektiboa)

Lezama Bizirik-eko partaide batek egingo du aurkezle-moderatzaile lana.

Martxoaren 24a, larunbata, 11:00tatik aurrera. Lezamako Plazan.

Jarduera plastiko popularra.

Kartel, pankarta eta hormirudien egitea eta erakusketa.

Lema: *eta zuk, zeozer pintatzen al duzu etxebizitzaren arazoan?* Partehartzaileak nahi duzuen guztiok izango zarete.

Honekin batera asteburu honetan partehartzeko gonbita luzatzen zaitugu.

Oraingoan ere zure presentziak balore izugarria dauka guretzat eta batez ere gure herriaren etorkizunarentzat.

JORNADAS SOBRE LA VIVIENDA EN LEZAMA

23 Y 24 DE MARZO. ¡PARTICIPA!

Los días 23 y 24 de marzo, la Asociación vecinal Lezama Bizirik va a organizar unas jornadas en Lezama en torno al problema de la vivienda.

El tema de la vivienda está en el mismo centro del debate sobre el futuro de Lezama. Dos datos, entre otros muchos, pueden servir para darnos cuenta de su importancia:

1º-En los próximos 8 años los planes del Ayuntamiento prevén seguir construyendo viviendas hasta poder llegar a duplicar la actual población de Lezama.

2º-A pesar de ello ninguna de las nuevas viviendas se ha previsto que sea de VPO ni se destinarán a alquiler social, con lo que muchos de nuestros jóvenes seguirán viéndose obligados a dejar el pueblo, tal y como lleva ocurriendo desde hace años.

El debate está ahí: Cuánta y qué tipo de vivienda necesitamos, qué dicen las normas y leyes en vigor, qué margen hay para la participación ciudadana, qué influencia puede tener la nueva Ley del Suelo en todo ésto, etc.

Por todo ello Lezama Bizirik ha organizado una Conferencia-Mesa redonda y una actividad popular, en aras a seguir progresando en el conocimiento y la participación en todos los temas donde se está jugando nuestro futuro.

He aquí el programa:

23 de Marzo, viernes, 19:30 horas. Aula de Cultura del Ayuntamiento.

Conferencia –Mesa Redonda.

Intervinientes:

- Iñigo Maguregi (Depto. de Vivienda del Gobierno Vasco)
- Alberto Frías (Mov. Ecologista Eguzki)
- Karlos Morentín (Colectivo Elkartzen)

Intervendrá como presentador-moderador un miembro de Lezama Bizirik.

Día 24 de Marzo, sábado, a partir de las 11:00 horas. Plaza de Lezama.

Actividad popular plástica.

Concurso elaboración-exposición de carteles, pancartas y murales.

Lema: Y tú, ya pintas algo en el problema de la vivienda?

Los intervinientes seréis tod@s l@s vecin@s que lo deseéis.

Sólo nos resta invitarte a que participes. Tu presencia, como siempre, tiene un valor inestimable, para nosotr@s y para el futuro de nuestro pueblo.

...eta zuk, zeozer pintatzen al dozu etxebizitzaren arazoan?

Auzoan...

- Zera, bai, gure Aitor, Galdakaora joan jaku, hamen etxerik topeu ez!!*
- Bai geure Iratxek be joan behar izen deu, Lezaman karu, dana karu...*
- Bai Maria Jesusen alabia be horregaitik joan zan...*
- Bai, ta Bekoetxeko Mikel...*
- Ta...*

Lagunartean...

- Jo ba eztakit zer egin, bankuagaz lotzen banaz betiko zama daroat gainean. Baina beste alde batetik neure etxea eukin gura neuke...*
- Babes Ofizialekoak begiratu dozuz ondo ?*
- Lezaman ?? ez dakie zer dan hori...*

Tabernan...

- Bai, zeozer komenteu da, herrie handitu gurean dabiz...*
- Entzun dot bai Aretxalde hondatu gure deurela, fabrikek eta...*
- etxiak be barra-barra eiteko asmoa dekie ganera, baie ez pentseu merkeatarikoak izengo direnik e? nik pentseu bertokoak gatz eukiko dogula horrerri aurre eiteko.*
- kapitalekoak etorriko jakuz, ta geu joan bihar...*

Dendan...

- Ene, ointxe entereu naz hor goiko pisu barriek zenbatean dauzen !!!zorakerie !!*
- bai Maritxu holan da bai, danak gora eiten deu ta geuk ezin gora ein, geu ito iten gara....*

Etxean...

- Eizue behar gero zeuon etxia ta familie aurrera atara behar dozue eta...*
- Baie batzuk 2, 3 eta 4 etxe be badekiez ta behar gitxi einde...*

Auzoan, lagunartean, etxean, tabernan, dendan non eztozuz entzun berriketa honek?

Kezka, ideia, zalantza eta gogoeta asko daukaguz elkarbanatzeko auzoan,lagunartean,etxean,tabernan zein dendan.

Eta zuk, zeozer pintatzen al dozu etxebizitzaren arazoan?

Marra bat, kolore bat ideia bat, zatoz, adierazi eta konpartitu !!

Lezaman, 2007ko martxoaren 23/24 asteburuan Lezama Bizirik Elkarteak jarduera interesgarri batzuk antolatu ditu arazo honen inguruan gehiago murgiltzeko. Parte hartu !

Egin zaitez bazkide! lezamabizirik@lezamabizirik.com